

ZUMARRAGA-URRETXU / Ur Apalategi Euskarazko Irakurle Taldean

Zumarraga-Urretxuko euskarazko irakurle taldeak 2010-2011 ikasturteko bosgarren bilkura egingo du otsailaren 15ean, arratsaldeko 19:00etan. Bilkura hau Urretxuko liburutegian izango da.

Bilkuran, Ur Apalategiren "Fikzioaren izterrak" ipuin liburua izango da aztergai, idazlea bertan dela. Ur Apalategi Maite Iridin eta Jokin Apalategiren semea da, euskal filologian doktorea eta zuzenbidean eta letra frantzesetan lizentziaduna. Pauko unibertsitatean euskal literaturako irakasle. Irakasteaz gain, kolaborazioak idatzi ditu hainbat egunkaritan, hala nola, Garan eta Euskaldunon egunkarian. "Gauak eta hiriak" izan zen argitaratu zuen lehen eleberria, harengatik Beterriko Liburua Saria irabazi zuen. Beraz, interesa duen edonor joan daiteke datorren asteartean Ur Apalategik parte hartuko duen tertuliara. Liburuaren inguruan solastuko direnez, beti ere hobeto liburua irakurrita eramatea, baina bestela ere atea irekita daude edonorentzat.